Parte hartzen duten beste pertsona edo entitate batzuk: ***Tutoreak eta gainerako irakasleak, Tuterako beste ikastetxe batzuk, Tuterako Udala, SAME.***
GGKE laguntzailea: ***SETEM, UNICEF, Medicus Mundi Nafarroa.***

IDENTIFIKAZIOA

PROIEKTUAREN IZENA

"Paz sin fronteras ni límites."

ZENTROA IDENTIFIKATZEKO DATUAK

Valle del Ebro BHI Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zentro publikoa da. G ereduko ikastetxe hori Tuteran dago, eta 1.117 ikasle eta 128 irakasle ditu.

AURREKARIAK, ABIAPUNTUA

- 2009-2010eko Bizikidetza Planak sentiberatze jarduerak zituen, aldez aurretik Tuterako Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez SETEM GGKErekin harremanak izan zirelako.

- Bizikidetza Lantaldeak prestakuntza jaso nahi zuen, eta "Elkartasunezko ikastetxeak" ikastaroaren berri izan zutenez, lau irakaslek parte hartzea erabaki zuten: horietariko bik goi mailako ardura zuten (ikasketaburua eta bizikidetzako arduraduna), eta sentiberatze jarduerak zabaltzen lagundu zuten. Gainerako biek, Natur Zientzien departamentukoek, Milurtekoko Garapen Helburuen (MGH) sarrera egin zuten hainbat ikasgaitan, Mundu Garaikidearen Zientzietan, besteak beste.

PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA

XEDE-MAILAK

Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendu zaie proiektua.

HELBURUAK

- **Prestakuntza prozesu bat gauzatzea**, bai edukietan, bai metodologian, ikasleak sentiberatzeko, ematen ditugun ikasgaiak zein tutoreen jarduera baliatuta.

- **"Elkartasunezko ikastetxeetan"** ikasitakoa praktikan jartzea, ikastetxeko berezko elementuak erabiliz, tutoretza planak eta bizikidetza plana, besteak beste.
- **Ikastetxea elkartasunezko hainbat kanpainatan sartzea**, Tuterako beste ikastetxe batzuekin koordinatuz eta gure jarduerak partekatuz.

EDUKIAK

- Desberdintasunak eta bidezko merkataritza.
- Tolerantzia, kultura arteko bizikidetza, elkar onartzea eta aberastea aniztasunaren barnean.
- Desberdintasunen aurkako sentiberatzea.
- Milurtekoko Garapen Helburuak.

JARDUERA NAGUSIAK, ERABILITAKO METODOLOGIA ETA DENBORAREN BANAKETA

Prestakuntza saioak

Lantaldeak hainbat alorretako prestakuntza jaso zuen: abenduan, Nafarroako GGKEren Koordinakundearen Hezkuntza-batzordeko kide batzuek bi saio antolatu zituzten, ondoko gaiak lantzeko: Garapenaren aldeko Hezkuntza kontzeptua, ikasgelan eta zentroan erabili beharreko metodologia eta Milurtekoko Garapen Helburuak.
Alboan GGKEk ere saio bat eman zuen otsailean. Hauxe izan zen gaia: Hezkuntzaren aldeko Munduko Ekintzaren Asteko kanpaina 2010
Proiektua garatu zen denboran, Nafarroako GGKEren Koordinakundeak hainbat aholkularitza tekniko eman zizkion taldeari

Desberdintasunei eta bidezko merkataritzari buruzko astea (2009ko abendua)

Tuterako Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta SETEM GGKEren bidez egin ziren jarduerak. Jarduerak tutoretzetan egin baino lehen, tutoreen bileretan azaldu ziren proposamenak.

- **Kafeari buruzko erakusketa**: kafetegian ikus ahal izan zuten ikastetxeko guztiek.
- **"Espartinak" rol jokoa**: DBHko 2. mailako tutoretza guztietan egin zen, eta kontsumitzen ditugun produktu guztiei buruzko gogoeta egiteko aukera eman zuen.

- **Bidezko merkataritzako produktuen azoka txikia**: aste horretan jarri zen, astearteko eta osteguneko atsedenaldietan.
- **"Ropa Limpia" antzezlana**: Astea bukatzeko, DBHko 2. mailako talde guztiek ikusi zuten antzezlana.

Bakearen aldeko astea: (2010eko urtarrila-otsaila)

" Leloa baliaturik, "bakea" hitzaren esanahia zabaltzeko saiakera egin zen: tolerantzia; kulturen arteko bizikidetza; elkar aberastea, aniztasuna abiapuntu harturik; eta pertsonekiko eta ingurumenarekiko errespetua, desberdintasun, pobrezia eta bidegabekeriaren aurka borrokatuz. Nabarmendu behar da hezkuntza komunitate osoak parte hartu duela, tutoretza jardueren eta departamentuen parte-hartzearen bidez.

- **Kultura arteko erakusketa**: irakasleek eta ikasleek ekarritako objektuen bidez, ikastetxean bizi garen guzion kultura azaldu zen.
- **"Bakea" hitza**: munduan dauden agurrak eta bake mezuak jarri genituen horma-irudi batzuetan, hainbat hizkuntzatan idatzita.
- **Argazki lehiaketa**: leloaren interpretazio desberdinak agertu ziren.
- **Filmak ikusi**: Julio Mazaricoren "Historia de cuatro vidas" filmak eta "Invisibles" dokumentalak leku zehatz batean jaiotzeagatik gizaki batzuek pairatu behar dituzten bizi-baldintza gaitzak gogorarazi zizkiguten.
- **"Si el mundo fuera un avión" eta "Solidarine"**: tutoretzetan lan egin ziren. "Si el mundo fuera un avión" kontakizunak desberdintasunez betetako mundu anitza aurkeztu zigun, eta DBHko 1. mailan landu zen. Era berean, "Solidarine" jarduera, aberastasunaren banaketa okerraren aurkako botika, DBHko 3. eta 4. mailetan jorratu zen.
- **Milurtekoko Garapen Helburuekin egindako lana**: Batxilergoko 1. mailan landu ziren, Mundu Garaikideko Zientzietan. Ikasgai horretan osasuna lantzen denez, Milurtekoko Garapen Helburuek osasuna hobetzeko laguntzen ahal duten ekintzei buruzko argibideak ematen dituztelako. Bakearen Egunari dagokionez, gaiak aukera eman zuen ikasleek informazioa bilatzeko eta euskarri digitalean (powerpoint) edo karteletan aurkezteko.

Hezkuntzaren aldeko Munduko Ekintzaren Asteko kanpaina: (2010eko apirilaren 19a eta 23a artean)

- **Kanpainako bideoak eta "Binta y la gran idea" film laburra ikusi**: DBHko 1. eta 4. mailen arteko tutoretzetan egin zen.
- **Leloak egin**: tutoretzetan ere hainbat lelo egin ziren, eta, jarraian, "" kanpainako ekitaldi publikoarentzat ikastetxeak ekarri zituen karteletan eta baloietan erakutsi ziren.
- **Kanpainaren ekitaldi publikoan parte hartu**: Tuteran, apirilaren 23an, atal bat gure ikastetxearen ordezkari izan zen, eta aipatutako kartela eta baloiak ekarri zituen.
- **On line zabaltzea**: gure ikastetxeko webgunean ekitaldi horri buruzko informazioa eman zen, eta Interneten bidez ekimenari laguntzeko sinadurak jasotzera bultzatu zen.

ERABILITAKO BALIABIDEAK

Geureak

- **"Bizikidetza orga"**: ikasturtean barna kanoia duen altzari bat, ordenagailu eramangarria eta bozgoragailuak erosi ziren, ekipamendua ikasgelara eramateko eta materialak ikusi ahal izateko.
- **Teknologia berriak**: egindako jarduerak zentroko intraneten eta webgunean kargatzen ditugu gora, eta deialdiak, argazkiak, etab. partekatzen ditugu.
- Kultura arteko erakusketarendako **objektuak**.
- "Bakea" hitzari buruzko **horma-irudiak**.
- Lehiaketarako **argazkiak**.
- Leloak dituzten kartelak eta baloiak SAMErendako.

Kanpokoak

- Kafeari buruzko **erakusketa**, SETEMena.
- **Bidezko merkataritzaren produktuak**, SETEMenak.
- **"Espartinak" rol jokoa**.
- **"Ropa Limpia" antzezlana**.
- **Bideoak**: "Historia de cuatro vidas" filma, "Invisibles" dokumentala, "Binta y la gran Idea" UNICEFen film laburra eta SAMEren bideoak.
- Nafarroako Medicus Mundiren **jarduera**.
- Nafarroako Medicus Mundiren **"Solidarine"** gozokiak.

EBALUAZIOA

ALDE SENDOAK

- Jarduerak antolatzea eta zabaltzea, tutoretzen eta hainbat ikasgai alorren bidez.
- Ikastetxean lantaldeak jaso duen prestakuntza, gainerako irakasleendako aurkikuntza garrantzitsua izan baita.
- Desberdintasunei eta bidezko merkataritzari buruzko asteko esperientzia.
- Tuterako ikastetxeak SAME 2010en koordinatzea eta harremanak izatea.
- Kafetegian emandako proiekzioen bidez, atsedenaldietan sentiberatze saioak egitea.
- Teknologia berriak erabiltzea.

ALDE AHULAK ETA OZTOPOAK

- Batzuetan, tutoreek frustrazioa sentitzen dute tutoretza orduetan ikasleek axolagabekeria eta parte-hartze urria agertzen dituztelako. Jarduerek benetako munduari buruzko gogoeta egiteko aukera eskaintzen dute, nahiz eta mundu hori "ikasleen eguneroko zereginetik" urrun. Nolanahi ere, kasu guztietan jarduera horiei eusteko eta modu jarraituagoan lantzeko garrantzia azpimarratzen dute.
- " Kontakizuna "aski gordina" iruditu zaie ikasleei, eta ez dutela behar bezala ulertzen antzematen da, han agertzen dena pertsonalki bizi ez baitute.

HOBETU BEHARREKO ALDERDIAK

- Denbora gehiago behar da jarduerak ikasgaietan sartzeko.
- Irakasleen prestakuntzari jarraipena eman behar zaio, eta, horretarako, gaietan sakondu behar da, GGKEk dituzten material didaktikoetan batez ere.
- Prestakuntza hori herriko beste ikastetxe batzuetara zabaltzea ideia ona dela uste du jendeak. Horrela, alor berean ariko den ikastetxe sare bat eraikiko da.
- SAME 2011ren hurrengo kanpainan modu aktiboan parte hartzen jarraitu behar da. Heldu den ikasturteko lan planifikazioan sartuko da ekintza hori, eta tutoretzen bidez gogoeta egiteko ekintza gehiagoz osatuko da.

SANTA TERESA
Semanas por la Solidaridad

Proiektuaren izena: ***"Semanas por la Solidaridad".***
Ikastetxearen izena: ***Santa Teresa.***
Zentroko ikasle kopurua: ***858***
Zentroko irakasle kopurua: ***59***
Lantaldea (izenak eta ardurak): ***Elena Jimenez, LHko 5. mailako irakasle tutorea eta proiektuaren koordinatzailea; Mª José Ripio, DBHko 3. mailako irakasle tutorea, ingeleseko irakaslea eta Hizkuntzen Departamentuko koordinatzailea; Marina Etxeberria, DBHko 1. mailako irakasle tutorea eta Batxilergoko Zientzietako irakaslea; Nigel Bowls, DBHko 2. mailako irakasle tutorea eta ingeleseko irakaslea; Mª Jesús Ubago, DBHko 4. mailako irakasle tutorea eta ingeleseko irakaslea; Laura Pérez de Larraya, Ezagutzako eta ingeleseko irakaslea Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan.***
Otras personas o entidades implicadas: ***Guraso elkartea, ikastetxeko irakasleak, irakasleak ez diren beste batzuk, Ermitagañako parrokia.***
ONGD colaboradora: ***FundEo, Manos Unidas, SETEM, UNICEF, Medicus Mundi Nafarroa.***

IDENTIFIKAZIOA

PROIEKTUAREN IZENA

"Elkartasunaren aldeko asteak"

ZENTROA IDENTIFIKATZEKO DATUAK

Santa Teresa ikastetxea Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko itunpeko zentro publikoa da. G ereduko ikastetxe hori Iruñean dago, eta 858 ikasle eta 59 irakasle ditu.

AURREKARIAK, ABIAPUNTUA

Nafarroako GGKEren Koordinakundeak antolatuta eta ILZn emanda, "Elkartasunaren aldeko ikastetxeak" prestakuntza ikastaroan parte hartu zuten ikastetxeko sei pertsonek. Hori dela eta, komunitate osoa sartu nahi izan genuen -ikasleak batez ere- "Elkartasunezko ikastetxeak" ekimenaren barnean dagoen hezkuntza proiektuan.

- **Elkartasunaren aldeko merkatu txikia**: duela 12 urte ari da, eta han bildutako dirua FundEo eta Manos Unidas erakundeetako proiektuetara bideratzen da.
- **Elkartasunaren aldeko astea**: azoka txikia izan baino astebete lehenago egiten da, eta parte-hartzea eta sentiberatzea bultzatzen dira aste horretan. Aste horretako ekintzez arduratuko ginela esan genuen, eta hiru astera luzatu genuen horren iraupena.
- **FundEo GGKE**: ikastetxearen eta GGKE horren arteko harremanez arduratzen den pertsona bat dago.
- **Bidezko merkataritza**: 2008-2009ko ikasturtetik Batxilergoan egiten da. SETEM GGKEk produktuak ematen dizkigu.
- **"Ordu laurdenak"**: gogoeta egiteko, eskerrak emateko, elkartasuna adierazteko eta otoitz egiteko unea da, eta ikastetxe teresar guztietan egiten da eguneroko jarduna hasi baino lehen. 2009-2010 ikasturterako leloa hauxe izan da: "Juntos iremos más lejos"
- **Tutoretza ekintza plana, prestakuntzarako ordua**: Gure hezkuntza jardueraren oinarrizko alderdia da, eta horren bidez balioen hezkuntza bultzatu nahi dugu.

PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA

XEDE-MAILAK

"Semanas por la solidaridad" proiektua Bigarren Hezkuntzako ikasle guztiei zuzenduta dago batez ere. Halere, ekintza gehienak Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan ere egin dira, eskola ziklo horretarako egokiak direlako. Dena den, proiektuaren ikuspegia orokorra izan da, eta sentiberatzeko hainbat ekintza proposatu dira, Haur Hezkuntzatik Batxilergoraino.

HELBURUAK

Orokorrak:

- Gure ikasleak sentiberatzea, munduko aberastasuna desberdintasunez banatzeak dakartzan ondorioen kontzientzia har dezaten.
- Hezkuntzarako eskubidea gauzatu ezinak milioika pertsonari dakarzkien bazterketa egoera ezagutzea eta alfabetatzearen garrantzia ulertzea, azken hori gizakiaren eta komunitatearen garapena aintzinatzeko funtsezko alderdia baita.
- Genero desberdintasunak ezagutzea, beste desberdintasun mota bat baita.
- Elkartasunezko kontzientzia kritiko eta solidarioa sortzen laguntzea, pobrezia pairatzen duten beste errealitate batzuk ulertuta.
- Bidegabeko egoeren aurrean dugun ardura nork bere gain hartzea eta mundua aldatzeko dugun ahalmena ulertzea
- Talde lana bultzatzea, hainbat jarrera erakutsiz: errespetua, parte-hartzea, ahalegina eta lankidetzan aritzeko grina.

Espezifikoak:

- MGH (Milurtekoko Garapen Helburuak).
  - MGH hobeki ezagutzea: zergatik, noiz eta nola sortu ziren jakitea, eta hartutako konpromisoekin lotutako hirutan sakontzea.
- FundEo eta Manos Unidas.
  - FundEo eta Manos Unidas erakundeen proiektuen bidez beste errealitate batzuk ezagutzea.
  - Pobrezia eta desberdintasunak sortzen dituzten egoerak ulertzea eta gure laguntzak berebiziko garrantzia duela kontuan hartuta kontzientzia hartzea.

- Azoka txikia.
  - Elkartasunaren aldeko azoka txikiaren jarduera baloratzea eta hezkuntza komunitate osoa sartzea merkatua aitzinatzeko.
  - Dirua biltzea, FundEo eta Manos Unidas erakundeen proiektuetara bideratzeko.
- Adierazpenak.
  - Ondorioak ateratzera eta nork bere konpromisoak hartzera bultzatzea.
- Txokolate jatea.
  - Bidezko Merkataritzako produktuak sustatzea eta horien kontsumoa bultzatzea.
- Urari buruzko jarduerak.
  - Nork bere larruan bizitzea ur bila urrunera joan beharrak eta edateko urik edo ur garbirik ez izateak dakartzan eragozpen guztiak.

EDUKIAK

- MGH helburuak ezagutzea.
- MGH eta nork bere gain hartutako proiektuak lotzea.
- Elkartasunezko azoka txikian aktiboki eta kontzienteki parte hartzea.
- Arduraz eta elkartasunez egin beharreko kontsumoa bultzatzea.

JARDUERA NAGUSIAK, ERABILITAKO METODOLOGIA ETA DENBORAREN BANAKETA.

Elkartasunaren asteen aurreko astea (2010eko otsailaren 15etik 19ra)

- **Diptikoa egitea eta ematea**: horretan elkartasunaren hiru asteetako jarduerei buruzko informazioa ematen zen.
- **Erakusketak**: UNICEG erakundearena, Milurtekoaren Garapen Helburuei buruz; eta FundEo erakundearena, zentroak GGKE horrekin dituen proiektuei buruz -Elkartasunaren aldeko azokaren bidez laguntzen dira horiek-.
- **Mafaldaren binetak**: justizia eta elkartasunari buruzkoak dira, eta zentroko eskaileretan paratu ziren.

- **Petersen mapak**: bi mapa jarri ziren zentroko korridoreetan bertan uzteko; horien ondoan goiburu hau ageri zen: "Ausartzen zara mundua beste modu batez begiratzera?".
- **Hegazkina-mundua jarduera**: munduko biztanleen eta aberastasunaren banaketari buruzko hausnarketa.
- **Txokolatearen jarduera**: munduko baliabideen banaketari buruzko hausnarketa, baita horren arrazoiei eta ondorioei buruzkoak ere.

Elkartasunaren Lehen Astea (otsailaren 22tik 26ra)

- **Ordu laurdena**:
  - Milurtekoaren Garapen Helburuen aurkezpena UNICEF erakundearen CD baten bidez; 2., 3., eta 7. helburuak izanen dira ardatz.
  - Nafarroako Medicus Mundiren "Solidarine" jarduera: medikamendu gisa aurkezten den gozokia da hori, eta horren helburua da inguratzen gaituen gizartearekiko jarrera aktiboa eta kritikoa bultzatzea.
- **Prestakuntza/tutoretza ordua**: gela bakoitza UNICEF eta FundEo erakundeen erakusketak ikustera joan zen, eta horretan informazioa bilatu behar izan zuten guk egindako galdera batzuei erantzuteko.
- **Bidezko Merkataritzako txokolate-jatea**: ama talde batek txokolatea prestatu eta Batxilergoko ikasleek banatu zuten; horrez gainera, produktuak zituen stand bat ere prestatu zuten ikasleek. Txokolate-jatearen aurretik elkartasunaren aldeko proiektu batzuk aurkeztu ziren power point batzuen bitartez.
- **Kartelak jartzea**: Batxilergoko ikasleek kartelak paratu zituzten elkartasunaren aldeko azoka eta kontzertua iragartzeko auzoko dendetan eta inguruetan.

Elkartasunaren Bigarren Astea (martxoaren 1etik 5era)

- **Elkartasunaren aldeko azoka**: maila bakoitzak ordu erdiko bisita egin zuen azokan; aste osoan zehar egon zen irekita hori. Martxoaren 3an, asteazkena, eginen zen elkartasunaren aldeko kontzertuan parte hartzeko gonbita egin zieten bisita horretan.
- **Ordu laurdena**: Milurtekoaren 7. Garapen Helburua: Lehen Hezkuntzakoei aurretik koloratzaile batez zikindutako urez beteriko pitxer bat eskaini zieten. Ondoan ur garbia zuen pitxer bat zuten. Kutsatutako urak eragiten dituen gaixotasunei buruzko eztabaida egin zen, bai eta gure kontsumo arduradunak duen garrantziari buruzkoa ere.
- **Prestakuntza/tutoretza ordua**:
  - Milurtekoaren 3. Garapen Helburua: Lehen eta Bigarren Hezkuntzakoek UNICEF erakundearen "Binta y la gran idea" film laburra ikusi zuten, eta eztabaida egin zen ondorioak ateratzeko.

- Milurtekoaren 7. Garapen Helburua: Bigarren Hezkuntzan zenbait ikaslek bi solairu beherago zeuden lau bidoi ur hartu behar izan zituzten, eta euren ikasgeletara igo. Hausnarketa batzuk ere egin zituzten: ura nola erabiltzen dugun, beste leku batzuetan nola erabiltzen duten, eta horretara iristeko dauden zailtasunak.

Elkartasunaren Hirugarren Astea (martxoaren 8tik 12ra)

- **Ingelesezko jarduerak**: Milurtekoaren 2. Garapen Helburua: DBHko 1. eta 4. maila bitartekoek, testu eta bideoen bitartez, honako hausnarketa hau egin zuten: hezkuntzak irekitzen dituen ateak, eta horien aurrean izaten ahal ditugun jarrerak.
- **Prestakuntza ordua**: transmititu nahi genuena ulertua zuten edo ez baieztatzeko, ikasgela bakoitzak manifestu bat prestatu zuen landutako Milurtekoaren Garapen Helburuetako bati buruz.
- **Jarduera Hizkuntza Espainiarrean**: Bigarren Hezkuntzan elkartasunari lotutako testu azalpen bat egin zen.

ERABILITAKO BALIABIDEAK

Geureak
- Informazio diptikoa.
- Mafaldaren binetak.
- Petersen mapak.
- Elkartasunaren aldeko azoka eta kontzertuaren kartelak.
- Elkartasunaren aldeko proiektuei buruzko power pointak.
- Urez beteriko pitxerra eta bidoiak.
- Ingeleseko testuak eta bideoak.
- Manifestuak.
- Elkartasunari buruzko testu bat, testu azalpena egiteko Hizkuntza Espainiarra ikasgaian.

Kanpokoak
- UNICEF eta FundEo erakundeen erakusketak.
- Nafarroako Medicus Mundi erakundearen "Si el mundo fuera un avión" jarduera.
- UNICEF erakundearen CD bat Milurtekoaren Garapen Helburuei buruz.
- Nafarroako Medicus Mundiren "Solidarine" jarduera.
- Bidezko merkataritzaren produktuak, SETEMenak.
- UNICEF erakundearen "Binta y la gran idea" kanpaina eta film laburraren bideoak.

EBALUAZIOA

ALDE SENDOAK

- Proiektuaren zeharkakotasuna hezkuntza komunitate osoan.
- Sei irakasleen parte-hartzea "Elkartasunezko eskoletan".
- Zentroaren kalitatea hobetzeko planari lotutako lan moldea
- Ikasleen parte-hartze aktiboa eta balorazio positiboa.
- Santa Teresa Konpainiaren GGKEarekiko harremana (FundEo).
- SETEMen Bidezko Merkataritzako denda ikastetxean bertan egotea.
- Ikastetxeko webgunea jarduerei buruzko informazioa emateko.
- Ermitagañako parrokiarekiko harremana.

- Duela urte batzuetatik egiten diren aurretiko jarduerak (Elkartasunaren aldeko azoka eta kontzertua, Bakearen eguna, Kiloko kanpaina...)
- Irune Lekarozen hurbiltasuna, jarrera eta laguntza (Nafarroako GGKEen Koordinakundeko kidea da).

ALDE AHULAK ETA OZTOPOAK

- Proiektuaren ardura duten irakasleek biltzeko eta jarduerak aztertzeko duten denbora eskasa.
- Ikasgaiak egokitzea urte bakoitzeko programazioari.
- Txokolate-jatea behar bezala egiteko zegoen pertsona kopuru eskasa.
- Informatzeko blog bat sortzeko dagoen denbora falta.

HOBETU BEHARREKO ALDERDIAK

- Jarduerak ikasturtearen hasieratik antolatzea, hiruhilekoetan antolatuta.
- "Elkartasunezko eskolen" lantalde iraunkor bat sortzea, beste GGKE batzuekin jarduera berriak koordinatu eta bideratuko dituena.
- Irakasleak prestatzen jarraitzea justizia eta elkartasunaren gaiei dagokienez.
- Batxilergoko eta DBHko azken zikloko ikasleak inplikatzea azoka egin aurreko jardueretan (korridoreak dekoratzea, informazioa bilatzea...)
- Elkartasunezko jarduera guztiei buruzko informazioa emanen duen blog bat sortzea.
- Esperientzia honi buruzko informazioa bidaltzea gure herrialdean dauden gainerako ikastetxe teresianoei, hurrengo ikasturtean hori aplika ahal izan dezaten.

ARBIZUKO IKASTETXEA
Maite zaitut, marda!

Proiektuaren izena: ***"Maite zaitut, marda!"***
Ikastetxearen izena: ***Arbizuko Ikastetxea.***
Zentroko ikasle kopurua: ***11.***
Zentroko irakasle kopurua: ***2.***
Lantaldea (izenak eta ardurak):
Maia Ginea, koordinatzailea; Saioa Alegría, Saioa Jiménez, Elixabete Alegría eta Maia Razkin.
Parte hartzen duten beste pertsona edo entitate batzuk: ***Gurasoen Elkartea, Zirkete Kultura Taldea, Arbizuko Udala, eta Arbizu, Etxarri Aranatz, Lakuntza eta Agoizko zentroak.***
GGKE laguntzailea: ***SODePAZ.***

IDENTIFIKAZIOA

PROIEKTUAREN IZENA

"Maite zaitut, Marda!"

ZENTROA IDENTIFIKATZEKO DATUAK

Arbizuko ikastetxea Haur Hezkuntzako zentro publiko bat da, izen bereko herrian dagoena; D ereduko hezkuntza eskaintzen du, eta bertan 11 ikasle eta 2 irakasle aritzen dira.

AURREKARIAK, ABIAPUNTUA

Proiektuaren ekimena ikastetxeko Gurasoen Elkartetik dator: Arbizuk Marda herri palestinarrarekin duen senidetzea baliatuta, gurasoek irakaslei proposatu zieten Palestinako gaia ikasleekin lantzea, eta ideia ona iruditu zitzaigun.

Geroago, "Elkartasunezko Eskolak" mintegiaren eskaintza ezagutu eta gero, izena ematea erabaki genuen. Bilera bat egin genuen Hezkuntza Departamentuarekin, Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin eta SODePaz GGKEarekin, eta Gurasoen Elkarteari, Arbizuko Udalari eta "Zirkete" Kultura Taldeari ere prestakuntzan parte hatzeko aukera eskaini genien.

Etxarri Aranatz, Lakuntza eta Agoizko irakasle batzuek proiektuaren berri izan eta bat egin zuten horrekin, proiektua beste eskola batzuei zabalduta.

JARDUNBIDE ZUZENAREN DESKRIPZIOA

XEDE-MAILAK

"Maite zaitut, Marda!" proiektua Haur Hezkuntzako ikasleei zuzenduta zegoen (2-6 urte), baina Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasgela batean ere abian jarri zen. Proiektuaren oinarria berbera izan zen bi adin-tarteetan, eta jarduerak egokitu ziren ikasleeen heldutasun mailaren arabera.

HELBURUAK

Orokorrak:

- Eskola herriari zabaltzea
- Ikasleei hezkuntza balioak irakastea sozializazio aktibo bat errazteko, baita gero praktikan jarri ahalko dituen baliabideak eskaintzea ere.
- Zenbait balio lantzea, esaterako, elkartasuna, dibertsitatearekiko errespetua, tolerantzia, eta giza eskubideen ezagutza.
- Hausnarketa egitea gure bizimoduak eta kontsumoak ingurumenean eta beste pertsona batzuengan dituen ondorioei buruz.
- Zenbait egoeraren aurrean konpromisoak hartzen ikastea.

Espezifikoak:

- Milurtekoaren Garapen Helburuetako batzuk ezagutzea
  - Muturreko pobreziaren gaineko kontzientzia sortzea
  - Ingurumenaren garapen iraunkorraren gaineko kontzientzia sortzea
  - Elkartasuna sustatzea herrien artean garapenari laguntzeari begira
- Funtsezko giza eskubide batzuk ezagutzea, baita horiek pobreziarekin eta gizarte bazterkeriarekin duten erlazioa ere.
- Palestinako errealitatea ezagutzea, eta bere kultura, ohiturak, hizkuntza eta interesak errespetatzen ikastea.
- Marda herriarekin dagoen senidetzea sendotzea.
- Mardako eskola ezagutzea eta harekin elkarlanean aritzea.

EDUKIAK

- Bazterkeria, esklusio eta injustizia egoerak; herri aberastuen eta pobretuen arteko aldeak konparatzea; gure konpromisoaren eta elkartasunaren garrantzia.
- Herrialde eta bertako biztanleei erreparatzea eta horiei buruzko hausnarketa egitea.
- Errespetua desberdintasunen aurrean, baita iritziak entzuteko eta elkarbizitzarako arauen inguruan ere.
- Giza Eskubideak.
- Palestina ezagutzea (lekua, hizkuntza, kultura, arazoak...), baita Marda herria ere.

JARDUERA NAGUSIAK, ERABILITAKO METODOLOGIA ETA DENBORAREN BANAKETA.

- **Palestina ezagutzen**: proiektua hasi aurretik, familiek Palestinarekin erlazionatutako materialak ekarri zituzten ikasgelara, eta, besteak beste, honako galdera hauekin lan egin genuen: non dago?, zein da bertako hizkuntza?, nola idatziko da gure izena arabieraz?, zein da bere bandera?, jantzi bereziren bat erabiltzen dute?, nola irits gaitezke haraino?
- **Ipuina**: proiektuaren hasiera gisa, Palestinak ur faltarengatik jasaten duen egoera islatzen zuen ipuin bat sortu zen. Ipuinetik abiatuta, beste jarduera batzuk egin genituen, esaterako, izenburua jarri, egoera horri buruzko hausnarketa egin, nola laguntzen ahal dugun pentsatu...
- **Sukaldaritza tailerra**: Palestinako zenbait pastel tipiko ezagutu genituen, eta sukaldari txanoak buruan jantzita, gurinezko gaileta palestinar batzuk egin genituen, ghraybeh izenekoak.
- **Marda herria**: SODePAZ GGKEko kide batek Palestinara joandako bidaia batean egindako Mardako argazki batzuk ikusi genituen. Arbizu herriarekin asko konparatu genuen, eta herrian barna argazkiak ateratzeko txango bat egitea erabaki genuen, Mardako eta Arbizuko argazkiekin collage bat egiteko.
- **Uraren gaineko kontzientzia sortzea**: beste horma-irudi bat sortu zen, uraren eta bere kontsumoaren gaineko datuak agertzeko. Familiei hori ikusteko gonbita egin genien, eta informazio-eskuorriak banatu genituen.
- **Maite zaitut, maite zaitut Marda**: Pirritx eta Porrotx pailazoen "Maite zaitut" kantaren letra aldatuta, "Marda" hitza sartu eta koreografia bat sortu genuen; gero hori bideoan grabatu eta ingelesezko azpitituluak jarri genizkion Mardako eskolara bidaltzeko.
- **Erakusketa**: Palestinako haurrek egindako marrazkiak –SODePAZ GGKEak utzita–, gure ikasleek egindako marrazkiekin batera.
- **Eskubide berberak mundu osoan**: ikasle bakoitzak argazki bat aukeratu zuen zenbait herrialdetako argazkien multzo batetik, eta erretratu bat margotu zuen. Erretratu horiek funtsezko giza eskubideekin erlazionatu genituen.
- **Sentimenduen liburua**: haurrei eskatu genien aukeratzeko Palestinako gaiarekin zuten identifikazioa hobekien islatzen zuen sentimendua, eta adierazitako sentimendu guztiekin zerrenda bat egin eta hainbat marrazki egin ziren horiek agertzeko. Horiek guztiak bildu eta sentimenduei buruzko liburu bat sortu genuen.

- Bisita olibondora: Nakba eguna ospatzeko ("Nakba" hitzak "hondamendia" esan nahi du arabieraz, eta Palestinako ihesaldia izendatzen du) San Juan ermitara ibilaldi bat egin genuen; han olibondo bat dago landatuta Palestinaren omenez. Han, "Maite zaitut, Marda" kanta dantzatu genuen, eta olibondoaren inguruan jarri eta argazki bat egin genuen.

ERABILITAKO BALIABIDEAK

Geureak:
- Familiek ekarritako materiala.
- Palestinako argazkiak.
- Irakasle taldeak egindako ipuina.
- Palestinako kantak eta poemak.
- "Maite zaitut" kanta.
- Uraren gaineko horma-irudia.
- Sentimenduen liburua.
- Munduko pertsonen erretratua.
- Palestinara bidalitako power pointa.

Kanpokoak (SODePAZ GGKEak utzita):
- Palestinari buruzko informazio panelak.
- Errefuxiatuen kanpaleku batean idatzitako ipuina.
- Mardako argazkiak.
- DVDak.
- Palestinak egindako marrazkien erakusketa.

EBALUAZIOA

ALDE SENDOAK

- Familien eta ikasleen inplikazioa eta laguntza.
- Beste ekola batzuekin lan egiteko aukera, eta erakutsitako esker ona.
- SODePAZ GGKEak eta Nafarroako GGKEen Koordinakundeak prestakuntzan eta baliabideetan emandako laguntza.

- Herriko hainbat elkarteren eta erakunderen erantzuna.
- Mardako eskolarekin izandako harremana eta bertara materialak bidaltzea (kanta, koreografia, argazkiak eta sentimenduen liburua).

ALDE AHULAK ETA OZTOPOAK

- Ikasturtean zehar proiektua garatzeko izandako denbora falta, honako hauek aintzat hartuta: prestakuntza, sentiberatzea, proiektuaren sorrera, abian jartzea... Aurrerantzean errazagoa izanen da jarduera horiek ikasturtean zehar egitea, hasierako lana egina baitago.

HOBETU BEHARREKO ALDERDIAK

- Eskola eta adin desberdinetako ikasleak elkarrekin aritzea.
- Herriko zenbait eragileren parte-hartzea eta inplikazioa: familiak, ikasleak, irakasleak, erakundeak...

escuelas solidarias

elkartasun eskolak

2012 CONTIGO AVANZAMOS

Gobierno de Navarra

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala